

LOMCE desobeditzeko gida

Espainiako Gobernuak ezartzearen LOMCE legea ez aplikatzeko, puntu-puntu nola jokatu behar dute irakasle, ikasle, guraso eta ikastetxeek? Desobedientzia horrek zein ondorio ekar liezaieke? Nola egin aurre ondorio horiei? Zalantzak uxatzea helburu duen gida prestatu dute hainbat hezkuntza eragileren artean.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

ADOS DAGO HEZKUNTZA KOMUNITATEA: ezagutza memoristikoa eta ikuspegi merkantilista oinarrituriko curriculum espainiar elitista dakar LOMCE legeak, eta eredu horri kontra egitea da bidea. Horretarako, *Gure Gida. LOMCEri aurre egin eta Euskal Herrian gure hezkuntza eraikitzeko* liburuxka prestatu dute ELA, LAB, STEE-EILAS, Sortzen Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak, Hik Hasi eta Ikastolen Elkarteak, arlo pedagogiko eta juridikoan aditu direnen laguntzaz.

Desobedientziak batzuetan ez du zigor administratibo edo juridikorik, beste batzuetan ikastetxeetako langileei eragin diezaieke, eta hainbatetan baita ikasleei ere. Zigorgabetasunetik balizko ondorio okerrenetaraino, hona gidak aztertu dituen kasu nagusiak eta proposatzen dituen neurriak.

1) Gestioa, eskola komunitateak

Ikastetxearen funtzionamenduan eta zuzendariaren hautaketan pisu handiena organo gorenak du gaur egun, irakasle, ikasle, langile, guraso eta abarrek osatua. Organoaren erabakitze ahalmena aholkularitzara mugatu nahi du lege berriak, boterea zuzendariarengan kontzentratu, eta zuzendaria aukeratzeko orduan organoak duen garrantzia ezabatu. Era berean, molde jakin bateko hezkuntza pribatua ere lagunduko du dekretuak (sexu bereizketa egiten duena, euskara oinarri ez duena...), horien kontzertazioa erraztuz eta diru-laguntzak jaso ditzatela ahalbidetuz.

Gidak proposatzen du ikastetxeek bermatu dezatela eskola komunitateko ordezkari



Gida ikastetxez ikastetxe azaltzea dute xede. "Zabaltzea da asmoa, denona egitea, ikastetxe guztien tresna izan dadin", dio Marian Viadero egileetako batek. (Argazki-muntaia: Dani Blanco).

guztien parte-hartzea eta erabakitze ahalmena, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa ziurtatuz. Administrazioek ikuskariak bidal ditzakete legea betetzen ari ote den segurtatzeko, baina zigor aldetik "printzipioz ez du inolako ondoriorik", diote adituek.

2) Euskara ardatz

Gaztelania hezkuntza ibilbidearen oinarritako hizkuntza izan dadila agintzen du LOMCEk, murgiltze ereduak edota euskara oinarritako hizkuntza izatea debekatuz. Gidak dio, ordea, euskara hizkuntza-ardatza izateko konpromisoa hartu behar dutela eskoletan, bai ikasgelan, bai gainerako eremuetan ere, ikasle euskaldun eleanitzak hezteko. Estrategia honek ere ez luke ondorio administratibo edo legalik.

3) Ikasleen banaketa goiztiarrari uko

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan, ikasle "onak" eta "txarrak" banatzera bultzatzen du PPrene ereduak, unibertsitatera joango direnak eta Lanbide Heziketara doazenak bereizteko (ibilbide osoan sustatzen du legeak bereizketa akademikoa, ebaluaketen bidez batzuk baztertuz eta diskriminatuz). Oinarritako Lanbide Heziketa deiturikoak ere, emaitza akademiko jakin bat lortzen ez duten 15-17 urteko ikasleak bertan integratzea eta ibilbide orokorretik ateratzea (eta bide batez, eskola porrota eta nota txarrak ezkutatzea) du helburu.

Ikasleen arteko sailkatzea eta mailakatzea saihesteko, eta aukera berdintasuna bermatzeko, ikastetxeetan banaketa goiztiarrik ez egitea, gurasoek seme-alaben banaketa hori

ez baimentzea eta Oinarrizko Lanbide Heziketa salbuespenezko aukeratzat hartzea eskatzen du gidak. Ondorioz ez dute aurreikusitako adituek.

4) Ikastetxeetako emaitzak publiko ez egitea

Ibilbide osoan zehar ikasleek egiten dituzten –eta Espainiako Gobernuak zehazten dituen– azterketetako emaitzak publiko egitera behartzen du LOMCEk. Lehenengo eta bigarren mailako ikastetxeak sortuko dituzterrenda horrek, elitismoa eta lehia oinarri. Ranking horren arabera jasoko dituzte ikastetxeek diru-laguntza eta baliabideak, zentro “onenak” sarrituz eta emaitza okerrenak atzeratzen dituztenak baztertuz, ahulduz eta zigortuz. Ikastetxeen desoreka hori areagotzeko, besteak beste zentroko plazaen %20 espediente onena duten ikasleentzat erreserbatzeko aukera ematen du legeak. Txostenak neurri horiei guztiei uko egitera animatzen ditu erkidegoetako gobernu eta ikastetxeetako zuzendaritzak. Administrazioak ikuskariak bidal ditzakeela eta ikastetxeko zuzendaritzari espedientea ireki diezaioketela ohartarazten dute, “agian, inhabilitazioa eskatzeraino”.

Horregatik, “neurri honek benetako eragin-kortasuna izan dezan, ikastetxeen artean diskriminazioa eta konpetentzia ez sortzeko, eta administrazioek ikastetxe eta zuzendaritza gutxi batzuen aurka jo ez dezaten, funtsezkoa da eskualde ezberdinetan zabaldua egotea eta ikastetxe eta zuzendaritza kopuru dezente baten konpromiso irmoa lortzea”. Hots, zenbat eta babes eta mobilizazio handiagoa lortu, orduan eta zailagoa litzateke arau-haustea zigortzea: “Langile, ikasle eta familia ugari eta ikastetxe askotan edo gehienetan aurrera eramaten bada, arazo administrazioek izango dute, arazo handiak sortuko bailizkieke milaka langile zigortzeak”.

Zenbat eta babes handiagoa lortu, orduan eta zailagoa litzateke arau-haustea zigortzea. “Belaunaldi oso bati ukatuko diote titulazioa? Administrazioaren gain geratuko litzateke erantzukizuna”

5) Ikasgai jakinei muzin egitea

Educación cívica y constitucional bezalako ikasgaien bidez, ikuspegi espainiar zentralista txertatu du LOMCEk curriculumean, baita balio atzerakoi eta merkantilistetan erroturiko doktrinamendua. Halakoak, “modu berezian, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zeharka lantzea arautzen da”. Ikasgai horiek ez ematea da liburuxkak irakasleei egiten dien deia. Ez direnez ikasgai tronkal edo ardatzak, Espainiak ezarritako kanpo-azterketetan ez dira sartzen eta beraz eduki hauek ez jasotzeak ez du ondorio akademikorik ikasleen-

LOMCEri ez, euskal curriculumari bai

ESPAINIATIK datorren lege dekretua desobeditzeko jarraibideez gain, eragileek Euskal Herrirako nahi duten hezkuntza eredu ere zehazten du gidak, hainbat puntutan ardaztua: eredu deszentralizatua eta zentroen autonomia bultzatuko duena (antolaketa, ekonomian, ebaluazioan...); ikasle euskaldun eleaniztatunak sortuko dituen; kritikotasuna jorratuko duena; pedagogia berritzaileetan eta euskal curriculumean oinarritua (gaitasunak landuz pertsona gisa garapen integrala lortzeko eta euskal herritar gisa bere nortasuna eraikitzeko); aukera berdintasuna eta eskola inklusiboa bermatuko dituen; hezkidetzaren xede duena; parte-hartzailea eta demokratikoa; laikoa; bizi arteko ikasketak bultzatuko dituen; eta elkarbizitza eta lankidetzaren lagun dituen. “Kalitatezko eskolaz ari gara, ikasle bakoitzak bere gaitasun, potentzialtasun eta aukerak ahal bezainbeste garatzen dituenen”.

gan. Dena den, aurreko puntuko eragin berdina du ikasgai hauei muzin egiteak: administrazioak ikuskaria bidalitz gero, ikastetxeko zuzendari eta irakasleei espedientea ireki liezaieke. Irtenbidea? Aurreko atalekoa; funtsean, indarrak batzea.

6) Curriculum espainiarra arbuiazea

LOMCE ereduaren, ikasgai ardatzak Espainiako Gobernuaren esku daude (eta gaitasunetan baino gehiago, memorizatu beharreko edukietan oinarrituak). Horien eta kanpo-ebaluazioen bidez, ikastetxeetan jorratuko den curriculumaren erabateko kontrola lortu nahi dute. Horren ordez, Euskal Herriko errealitatea (linguistikoa, kulturala, soziala, geografikoa, politikoa...) eta gaitasunen garapena kontuan hartuko dituen pedagogia eta curriculum propioa lantzea da alternatiba.

Ondorioak bi norabidetan joan litezke. Batetik, zuzendari eta ikasleei espedientea ireki liezaiekete, aurreko ataletan ikusi moduan. Bestetik, gazteek eduki horiek ikasten ez badituzte, Lehen Hezkuntzan ez luke ondorio zuzenik, baina Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan gaintitu behar dituzten kanpo-azterketetan huts egingo lukete eta titulu ofizialik gabe geratzeko arriskua egongo litzateke. Horregatik, berriz ere, estrategia modu zabalean antolatzea ezinbestekoa dela errepikatzen dute gidan. Irakasle, ikasle, guraso eta langile guztiak inplikatzeko badira,

LOMCE	Desobedientzia neurria	Balizko ondorioak	Erantzuna
1) Zuzendariak du boterea	Eskola komunitateari eman erabakitzeke ahalmena	--	--
2) Gaztelania oinarrizko hizkuntza	Euskara oinarrizko hizkuntza	--	--
3) Ikasleen banaketa goiztiarra	Banaketa goiztiarrik ez onartu	--	--
4) Ikastetxeen rankinga, kanpo-ebaluaketetako emaitzen arabera	Emaitzak ez egin publiko	Espedientea irakasle eta zuzendariari	Indarrak batzea, administrazioarentzat denak zigortzea arazo bihurtzeraino
5) Balio atzerakoi, zentralista eta merkantilistak dituzten ikasgaiak curriculumean	Ikasgai horiek ez eman	Espedientea irakasle eta zuzendariari	Indarrak batzea, administrazioarentzat denak zigortzea arazo bihurtzeraino
6) Curriculum espainiarra ikasgai ardatzetan	Curriculum propioa landu	Espedientea langileei + ikasleak titulu ofizialik gabe uztea	Indarrak batzea, administrazioarentzat ikasle guztiak titulurik gabe uztea arazo bihurtzeraino
7) Kanpo-ebaluaketak	Azterketetara ez aurkeztu	Espedientea langileei + ikasleak titulu ofizialik gabe uztea	Indarrak batzea, administrazioarentzat ikasle guztiak titulurik gabe uztea arazo bihurtzeraino

“belaunaldi oso bati ukatuko diote titulazioa? Administrazioaren gain geratuko litzateke erantzukizuna”, dio Marian Viadero STEE-EILASeko kide eta gidaren egileetako batek.

7) Kanpo-ebaluaketetara ez aurkeztea

Ikastetxe kanpotik agindutako lau azterketa aurreikusten ditu LOMCEk. Lehen Hezkuntzan, bi egingo dituzte: bata 3. mailan, ikastetxeen esku, eta bestea 6. mailan, Espainiako Gobernuak ezarritako edukien inguruan eta ikastetxetik kanpoko irakasleek zuzendua. Emaitzak diagnostiko eta orientazio moduan erabiltzeko direnez, ez egiteak ez lieke eragingo ikasleei. Bigarren Hezkuntzako 4. mailan eta Batxilergoko 2. mailan egin beharreko etsaminak aldiriz –hauek ere Gobernu espainiarrak finkatutako edukiez eta kanpoko irakasleek zuzenduak–, gaingiditu egin beharko litzateke ikasleek, DBHko graduatu titulua eta Batxilergokoa eskuratzeko. Hortaz, beste behin, langileak espedientatzeko eta ikasleak titulu ofizialik gabe uzteko arriskua legoke. Eta beste behin, gakoa da ebaluaketa hauetan parte ez hartzea eta “besteak beste, egun horretan aldarrikapen festa orokor bat”



antolatuz erantzuna ahalik eta zabalena izatea. Finean, “atxikimendua ahalik eta handiena izateak emango dio arrakasta gidako neurriak gauzatu ahal izateari, eta horrek egingo ditu benetan eraginkor”, azaldu digu Viaderok.

Atxikimendu hori lortu nahian, aste honetan bertan gida aurkeztu ondoren eta hezkuntza eragile guztien ekarpen, gogoeta eta iruzkinak jaso ostean, ikastetxez ikastetxe liburuxka azaltzea dute xede. “Zabaltzea da asmoa, denona egitea, ikastetxe guztien tresna izan dadin”. Desobedientziaren aldeko aldarri horretan, gainera, eragile ugari biltzen dituen Hezkuntza Plataformen Topagunea dute lagun (baita beste hainbat ere).

Hezkuntza komunitatearekin batera, patronalen, sindikatuen, herri mugimenduen, udalen, Eusko Legebiltzarren eta Nafarroako Parlamentuaren babesa eskatzen dute gidaren egileek, erakunde bakoitzak dituen ahalmen eta eskumenen bidez eragiteko. Eta bereziki, atal guztietan Nafarroako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari zuzentzen zaizkie, LOMCE-ren eskariak ez ditzaten aplikatu, eta LOMCEri uko egiten dietenen aurkako kontrol eta zigor neurriak har ez ditzaten. ■

